

Umeekin jolasteko eta entretenitzeko

- Umeekin etxean jolasteko 70 ideia bildu ditu Axular lizeoak.
- Urtxintxak ere dozenaka jolas eta kantu bilduta dauzka bere atarian.
- Hitzketa atarian haurrentzako ipuinak, olerkiak eta kantak biltzen dituzte, baita horiek lantzeko proposamen didaktikoak ere.
- Euskal Irratiek umeentzako irratsaio bat egingo dute astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 11:00etara. Sarean ere entzun liteke zuzenean.
- Guraso.eus atarian umeekin etxean egiteko dozenaka ideiak dituzte, tartean baita errezetak ere.
- Aiaraldea.eus-ek #EtxeanGoxo izeneko atal berezia sortu du. Kokoriko Hezkuntza Faktoria umeekin ikusteko eta egiteko proposamenak egiten ari da, bideoekin.
- Jolasak.eus atarian bilduta dauzkate zenbait jolas.
- Kimutx.eu atarian umeentzako ipuinak, kantak eta zenbait baliabide eskaintzen dituzte.
- EITB Hiru katearen webgunean ere badira zenbait jolas umeentzat, eta baita margotzeko marrazkiak eta eskulanak egiteko tutorialak ere.
- Irribarrez-ek ere baditu margotzeko zenbait marrazki koaderno.

Irakurtzeko

- Eusko Jaurlaritzak ireki egin du eLiburutegia. Ehunka liburu eskuratzeko aukera ematen du. Izena eman behar da erabiltzeko. 20.000 liburu eta audioliburu daude eskuragarri adin eta gustu guztietarako: eleberriak, poema liburuak, komikiak, hizkuntza ikasteko

mailakatutakoak eta haurrentzako literatura. Nafarroako Gobernuak ere ireki egin ditu bere baliabide guztiak, [eBiblio atalean](#).

- [Susa argitaletxeak](#) bere funtsetako liburua ia guztiak sarean eskaintzen ditu, PDF eta EPUB formatuetan eskuratzeko moduan.
- Horrez gain, [Susa argitaletxearen](#) inguruan antolatu da eduki sare zabal bat, [Armiarma.eus](#) atarian: literatura unibertsaletik euskara itzultako lanak eta euskal literaturako klasikoak deskargatzeko gune bat, ipuinen biltegi bat, euskarara itzultako lanen biltegi bat, euskarazko literatur lan klasikoen biltegi bat, euskal prentsa historikoaren hemeroteka, literatur aldizkarien gordailua, eta beste gauza asko.
- [Jakín-ek](#) pentsamenduari hegala emateko artikulua eta baliabide ugari eskaintzen ditu bere webgunean.
- Beste argitaletxe askok ere ematen dute liburuak *online* erosteko aukera: [Elkar](#), [Pamiela](#), [Alberdania](#), [Erein](#), [Txalaparta](#), [Katakra](#)...
- [Udako Euskal Unibertsitateak](#) euskarri digitalean eskaintzen ditu bere argitalpenak.
- [Booktegi.eus-ek](#) eskaintzen ditu hainbat liburu.
- [Zientziari](#) buruzko berriak eta artikulua landuak biltzen ditu [Elhuyarrek](#) bere aldizkarian. Ez soilik aldizkarian, [Zientzia.eus](#) atarian eduki gehiago eskaintzen ditu, ezagutza arloen arabera antolatuta.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Kultura Zientifikoko Katedrak argitaratzen duen aldizkari digitala da [Zientzia Kaiera](#).
- BERRIAN bertan, [Oroiteria](#) webgune berezian ikasi liteke 1936ko gerrari buruz, beste eduki askoren artean. Adibidez, [koronabirusari buruz azkeneko asteetan argitaratutako artikulua](#), [elkarrizketa](#) eta [erreportajeak](#) bilduta daude hemen.

Ikus-entzuteko

- [Berria Telebistaren kanalak](#) egunkari honek landutako erreportajeak, analisiak, mahai inguruak, bideokronikak eta abar ikusteko aukera ematen du.
- [Hamaika Telebistak](#), etxeko telebistan ez ezik, sarean ere eskaintzen ditu bere bideoak eta programazioa, bai zuzenean ikusteko, bai nahieran ikusteko.
- [Kanaldudek](#) ere ematen du bere saioak nahieran ikusteko aukera, saretik.
- [Bertsoa.eus](#) atarian bertsolaritzaz gozatzeko aukera zabala ematen du: bertsoari buruzko berriak jakinaraztean gainera, ehunka eta ehunka bertso saio ikus-entzuteko aukera ematen du, bideoekin.
- [Ganbara.eus](#) atarian dozenaka film luze eta labur ikus litezke, kasu batzuetan osorik ere bai. Konfinamendua hasi denetik, zenbait produktore eta egile hasi dira beren sormen lanak irekian eskaintzen, adibidez, [Txintxua Films](#).
- Sortzaile askok heldu diote erronkari, beren sorkuntzak doan eskainiz. Doxa Producciones-ek ere hala egin du (adibidez, [Aitor eta biok](#)), eta baita [Fermin Muguruzak ere](#). Topatuk ere irekian jarri du [Zizelkariak](#) dokumentala, eta Ane Irazabal kazetariak [Awlad dokumentala](#) ere bai.
- [Kimuak plataformak film laburrak](#) eskaintzen ditu Vimeoko bere kanalean. Aurtengo edizioak pixkanaka osorik jartzea erabaki du, konfinamendua hasi denetik.
- [Dapa ikus-entzunezkoetan](#) euskal sortzaileak beren lana azaltzen ari dira.
- [Euskadiko Filmategiak bere funtsetako hainbat grabazio](#) ikusteko modua eskaintzen du sarean.

- [Argia astekariak Multimedia kanal bat badauka](#), non euskarazko ikus-entzunezko sareko produkzio oso zabala biltzen duen: dokumentalak, erreportajeak, solasaldiak, telesail digitalak... Era askotako ehunka titulu bilduta dauzka hor.
- [Eusko Jaurlaritzaren eLiburutegiak](#) ere ehunka film eta telesail ikusteko aukera ematen du. Izena eman behar da erabiltzeko.
- [Filminek orain berri sortu du euskarazko kanal bat](#). Euskarazko fikzioa, dokumentala, marrazki bizidunak eta beste eskaintzen ditu.
- Booktegik badu [Elkarrizkatea izeneko sortzaileen arteko elkarrizketa sorta bat](#), bideoan, eta [literatur sortzaileei egindako elkarrizketen atal bat](#).
- ETBren EITB Kultura saio osoak ikus litezke hemen. Eta [Artefaktua](#) telebista saioaren programak hemen.
- [Euskal Encodings-ek](#) marrazki bizidunen telesail mordoxka bat dauzka bilduta hemen. Marrazkiez aparte, [filmak eta dokumentalak ere eskaintzen ditu](#), euskaraz azpidatzita.
- [Ahotsak.eus atarian](#) Euskal Herriko 6.000 lagun baino gehiagoren bizikizunak eta euskalkiak bildu dituzte.
- Artedrama antzerki konpainiak sarean jarri ditu bere hainbat antzezlan ikusgai, osorik: [Francoren bilobari gutuna](#), [Zazpi senideko](#), [Hamlet](#), [Hozkailua](#) eta [Errautsak](#).
- Tartean Teatroa antzerki taldeak bere hainbat antzezlan jarri ditu sarean, osorik ikusteko moduan: [Ghero](#), [Lingua Navajorum](#), [Zergatik Jamil?](#), [Ez dok hiru](#) eta [Pankreas](#).
- Tabalerak, itxita dagoenez, sareetan jarri du [#Tabakalera](#) Etxean ekinbidea. Han egindako [zenbait hitzaldi eta baliabide jarri ditu eskura](#).

Entzuteko

- [Badok euskal musikaren atariak](#) biltzen ditu euskal musikaren historia, oraina eta etorkizuna, eta euskal talde gehienek kantuak entzuteko aukera ematen du.
- [BERRIaren podcasten atalean](#) entzun daitezke Berria FM saioa, Ane Irazabalen *Zaitun*, Kirmen Uriberen *New Yorkeko munduaketa* Badoken *Dunbala*.
- Konfinamenduaren garaian ekinbide berri bat sortu da bertsoa plazara ateratzeko: Etxetik etxera izena du, eta itxialdiak iraungo duen garaian, ostiralero, 18:30ean, bertso saio bat egingo dute, zuzenean. Martxoaren 20an egin zuten aurreneko saioa. Instagrameko kontu honetan aurki liteke informazio gehiago: [EtxetikEtxera](#).
- [Arrosa irratien sarearen webguneak](#) euskarazko irratik libre, komunitario eta txikien programa asko entzuteko aukera eskaintzen du.
- [ZuZeu atariak podcastak](#) sortzeko bideari ekin dio azkeneko urteotan. Sorta zabal bat ari da osatzen.
- [Xerezaderen artxiboak](#) aukera ematen du literatur pieza batzuk entzuteko euskaraz.
- [Sarean.eus atariak hainbat podcast eskaintzen ditu](#), eta ingurune digitalari buruzko artikulatuak ere biltzen ditu.

Jolasteko

- [Gamerauntsia atariak](#) euskarazko bideojoko sorta bat eskaintzen du.
- [Ahotsak.eus](#)-ek badu aplikazio bat, euskalkien inguruan jolastuz ikasteko.
- [AtopiaRPG](#) rol jokoaren sortzaileek askatu egin dute liburua, eta nahi duten guztien eskura jarri dute.

Kantatzeko, dantzatzeko...

- [Dantzan.eus](#) atarian ari dira bideo sorta bat egiten, [Eutsi Dantzan](#) izenekoak. Fandangoa, arin-arina, zortzikoa, jauziak... eta beste dantza askori buruzko jakingarriak eta ikastaro txikiak ematen ari dira horietan.
- [Gabi de la Mazak](#) ehunka bideo ditu [Youtuben](#), euskarazko azpidatziekin, karaoke gisa kantatzeko.
- [Izaskun del Cerro](#) zumba ikastaroa ematen ari da [Aiaraldea.eus](#) atarian.

INFORMAZIO HONEN ITURRIA: BERRIA EGUNKARIA
INFORMACIÓN OBTENIDA DEL PERIÓDICO BERRIA.